


# INFLAZIOA

## Kontsumoko prezioek tasa negatibotan jarraitzen dute

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Prezioek %0,2 egin zuten behera aurtengo irailean, 2019ko hilabete berarekin alderatuta. Beraz, jaitsiera erritmoa bi hamarrenetan leundu zen abuztuko tasaren aldean. Erregistro hori kontuan hartuta, urte arteko KPIak bi hilabetez jarraian izan ditu beherakada txikiagoak, baina sei hilabete eman ditujadanik tasa negatiboetan, hain zuzen ere apiriletik, hau da, koronabirusaren pandemiak eztanda egin zuenetik.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko iraila	Ekarpena
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	1,6	1,0	-0,2	-0,2
<b>Azpiko inflazioa (%81,2)</b>	0,9	1,0	0,5	0,4
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,4	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,2	0,0
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	0,4	0,2
<b>Hondar inflazioa (%18,8)</b>	4,6	0,8	-3,0	-0,6
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	4,3	0,3
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-8,0	-0,9


### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Aurreko hilabeteko buletinean aurreratu zenez, gaur egun KPIa prezioen aurrez aurreko bilketarekin egiten ari da, baina bide telematikoen bidetako bilketa ere mantentzen da, segurtasun arrazoiengatik, aurrez aurreko bilketa egitea ezinezkoa den kasuetan. Datu bilketa horretan, etxebizitza taldea nabarmendu zen guztien artean (-%0,9ra igo da aurreko -%2,4tik), talde hori izan zelako inflazio orokorraren beherakada moteltzen gehien lagundu zuena, argiaren ordainagiriaren igoeraren ondorioz. Era berean, aisia eta kultura taldeak ere ekarpen positiboa izan zuen,

-%2,8tik -%2,0ra igaro baitzen; izan ere, pakete turistikoak gutxiago merkatu ziren hilabete honetan joan den hilean baino, nahiz eta beherantz jarraitzen duten, udan erregistratutako jarduera ohikoa baino txikiagoa izan baita. Bi talde horiei elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak biltzen dituen taldea gehitu behar zaie. Hain zuzen ere, talde horrek nabarmen igo zituen bere prezioak, lekaleen eta barazkien salneurrien portaerak eraginda. Aitzitik, osasun krisiak eragindako garaiorako erregaien merkatzeak talde horren beherakada eragin zuen.

### KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko iraila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,4</b>	<b>-0,3</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,7	2,4	1,4
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,5	0,5	3,4
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	-1,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-0,9	-1,4	-1,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,2	0,4	0,2
Osasuna	0,4	0,4	0,3
Garraioa	-4,7	-5,0	-3,2
Komunikazioak	-1,3	-1,4	-2,2
Aisia eta kultura	-2,0	-1,1	0,0
Hezkuntza	1,0	1,2	1,1
Jatetxeak eta hotelak	0,9	0,3	0,2
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,7	1,5	1,3

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.